

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

LEHIAKETA PUBLIKOA, UPV/EHUko gortinak  
kontratatzeko (41/07 LP). 21364

**Beste Iragarki Ofizial Batzuk****OGASUN ETA  
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA**

IRAGARKIA, Euskadiko Ekonomia-Arduralari-  
tzako Epaitegiarena, jakinarazpenak jaso ez dituzz-  
ten erreklamazio-egileen izenak jakitera emateko  
dena. 21365

**Pribatuen Iragarkiak****IZENPE, S.A.**

IRAGARKIA, ERP kudeaketa-sistema aztertu eta  
ezartzeko zerbitzuak kontratatzeko. 21367

**Xedapen Orokorrak****JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****5145**

127/2007 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, Kanpo Ha-  
rremanetarako Sailarteko Batzordea arautzen duena.

**AURREKARIAK**

Azken urteotan ugari izan dira Europako Batasunaren politikak erabiltzearen ondorioz eta erakundea bera handiagotzearen ondorioz gertatutako aldaketak. Era berean, eskualde europarrek hainbat erakunderen bidez esku hartzeko dituzten mekanismoak gaur egun erabat aldatu dira gu Europako Batasunera sartu ginenetik.

**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO**

CONCURSO PÚBLICO para la contratación de  
cortinas para la UPV/EHU (C.P. 41/07). 21364

**Otros Anuncios Oficiales****DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA**

ANUNCIO del Tribunal Económico-Administrativo de Euskadi, de la relación de reclamantes a quienes no se ha podido hacer entrega de notificaciones. 21365

**Anuncios Particulares****IZENPE, S.A.**

ANUNCIO de contratación para el contrato de ser-  
vicios de estudio e implantación de Sistema de Ges-  
tión ERP. 21367

**Disposiciones Generales****PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****5145**

DECRETO 127/2007, de 31 de agosto, de regulación  
de la Comisión Interdepartamental de Acción Exte-  
rior.

**ANTECEDENTES**

En los últimos años han sido muchos los cambios inducidos por la aplicación de las políticas de la Unión Europea, así como por su propia ampliación. De igual manera, los mecanismos de participación que tienen las regiones europeas a través de distintas instituciones, también son actualmente muy diferentes a los existentes en nuestra entrada en la Unión Europea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak protagonismo handia hartu du nazioarte mailan, batik bat kanpo-ko ordezkaritzak sortu eta abian jarri baitira. Aldi beraean, euskal gizatalde eta etxeekin ditugun harremanak nabarmenki areagotu dira maiatzaren 27ko 8/1994 Legea onartu izanaren ondorioz.

Azkenik, guzti horren ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Sailak ere murgildu egin dira nazioartekotze prozesu horretan eta, ondorioz, ia denak ari dira gaur egun beren eskumen eremuan kanporako diren jarduerak garatzen eta horiek, azken batean, beren erantzukizunetan ezinbesteko osagarriak dira barruko eremuari begira.

Guzti horren ondorioz, Jaurlaritzaren Kontseiluak «Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpo Harremanetarako Estrategia» onartu zuen 2005eko martxoaren 15ean. Hona estrategiaren azken helburua: «Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanen helburuak eta jardunbideak definitza, beharrezko diren egitura eta balia-bideak lerro horiei egokituz, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoak Europako Batasunean eta nazioarteko beste eremuetan duen eragin politikoa areagotze-ko». Era berean, globalizazio- edota nazioartekotze-prozesuen dinamikak berak bultzatzen duen ekimen honen bidez, nazioarteko inguruabarrei erantzun azkarra eta malgua eman nahi zaie, jarduera proaktiboa eta koordinatua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kanpo Harremanetarako Estrategiak kudeaketa eta jarraipena egiteko hainbat neurri aurreikusten ditu. Besteak beste, Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzorde bat abian jartzeko asmoa zehazten da, Gobernuaren ekintza koordinatzeko funtziok egiteko oinarrizko organo moduan eta estrategia horretan planteatutako bi helburu izango dituena, hau da, kanpoko harremanen planifikazioa eta koordinazioa.

Ildo horretan, Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen urriaren 3ko 187/2006 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari esleitutako funtziok gehiagotu egin dira, Jaurlaritzaren Kanpoko Harremanak jarduteko eremu berriei egokitzeko.

Guzti horren ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko abuztuanen 31n egindako bilkuran, honako hau

Por otro lado, la presencia de Euskadi en el ámbito internacional ha adquirido un gran protagonismo, en gran parte debido a la creación y puesta en marcha de las Delegaciones en el exterior. Al mismo tiempo, nuestras relaciones con las Colectividades y Centros Vascos-Eusek se han visto notablemente intensificadas, como consecuencia de la aprobación de la Ley 8/1994, de 27 de mayo.

Por último, en este proceso de internacionalización también se han visto inmersos los Departamentos del Gobierno Vasco, de tal manera, que en la actualidad la práctica totalidad de los mismos están desarrollando actividades de proyección exterior inherentes a su ámbito competencial que, en definitiva, suponen un complemento necesario al correcto ejercicio de sus responsabilidades en el ámbito interior.

Como consecuencia de todo ello, el Consejo de Gobierno aprobó, en sesión de 15 de marzo de 2005, la «Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi», que tiene por finalidad última, «definir los objetivos y las grandes líneas de acción de la Acción Exterior del Gobierno Vasco, adecuando a las mismas, las estructuras y recursos que resulten necesarios, destinados a incrementar el impacto político de Euskadi dentro de la Unión Europea y en otros ámbitos internacionales». Asimismo, con esta iniciativa impulsada por la propia dinámica de los procesos de globalización y/o internacionalización se trata de responder con prontitud y flexibilidad a las circunstancias internacionales mediante una actuación proactiva y coordinada.

La «Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi» ya prevé una serie de medidas de «gestión y seguimiento». Entre las mismas, se especifica la puesta en marcha de una Comisión Interdepartamental de Acción Exterior, como órgano fundamental en el ejercicio de las funciones de coordinación de la acción de Gobierno, y en correspondencia directa con los dos objetivos instrumentales planteados en dicha estrategia, estos son: la planificación y la coordinación de la acción exterior.

En este sentido, y de conformidad con lo establecido en el Decreto 187/2006, de 3 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno – Lehendakaritza, se han ampliado las funciones atribuidas a la Secretaría General de Acción Exterior, adecuándose a los nuevos ámbitos de actuación en que se está desarrollando la acción exterior del Gobierno.

En virtud de todo lo cual, a propuesta de la Presidencia, y previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 31 de agosto de 2007,

## XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Helburua.

Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea arautzea da dekretu honen xedea, Lehendakaritzari atxikitako kide anitzeko organo moduan, Jaurlaritzaren Sailen artean Kanpoko Harremanak koordinatu eta planifikatzeko.

**2. artikulua.**— Egitekoak.

Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordeari honako funtzio hauek dagozkio:

1.— Euskal Autonomia Erkidegoaren Kanpoko Harremanetarako Estrategian jasotako xedeak lortzeko ekintzak egitea eta euskal kanpoko harremanak planifikatu, bultzatu eta sustatzeko jardunbideak proposatzea.

2.— Europako Erakundeenkin eta, bereziki, Europako Batasunarekin, Europako Kontseiluarekin eta Europako eskualde-mugimenduarekin Sailen jarduerak koordinatzeko bultzada eta laguntza ematea.

3.— Euskal Autonomia Erkidegoko mugaren bi alde eta eskualde arteko lankidetza garatzeko neurriak aztertzea.

4.— Euskal Autonomia Erkidegoak kanpoan dituen ordezkaritzen bidez, hainbat alorretako eta lurraldeko interes defentsan eta sustapenean jokatzeko ahalbideak aztertzea.

5.— Eusko Jaurlaritzak beste herri, eskualde, hiri edo estatu azpiko erakunde, estatu gaineko erakundeenkin izan ditzakeen alde bateko edo alde askoko harremanak aztertu eta proposatzea eta nazioarteko foro eta erakundeetan esku hartzea.

6.— Kanpo Harremanetako Idazkaritza Nagusiak koordinazio-, sustapen-, eskuartze- eta informazio-eremueta proposatzen dituen neurriak eztabaidatzea.

7.— Esleitzen zaizkion beste guztiak.

**3.— artikulua.**— Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen osaera.

1.— Kanpo Harremanetarako Nazioarteko Batzordean ondorengoa arituko dira.

a) Batzordeburua: Kanpo Harremanetarako Idazkarri nagusia edo berak eskuordetutakoa.

b) Batzordekideak:

— Pertsona bat lehendakariordetzaren izenean eta Jaurlaritzako Sailen ordezkari bana.

— Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko zuzendariak.

## DISPONGO:

**Artículo 1.**— Objeto.

Es objeto del presente Decreto la regulación de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior, como órgano colegiado adscrito a Lehendakaritza, para colaborar en la coordinación y planificación de la Acción Exterior entre los diferentes Departamentos del Gobierno.

**Artículo 2.**— Funciones.

Corresponde a la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior las siguientes funciones:

1.— Analizar acciones tendentes a alcanzar los objetivos recogidos en la «Estrategia de Acción Exterior de la Comunidad Autónoma de Euskadi», proponer líneas de actuación que contribuyan a planificar, impulsar y fomentar una acción exterior vasca, coordinada e integral.

2.— Impulsar y colaborar en la coordinación de las actuaciones de los diferentes Departamentos con la Instituciones europeas, especialmente con la Unión Europea, con el Consejo de Europa y con el movimiento regional europeo.

3.— Examinar las medidas para desarrollar la cooperación transfronteriza e interregional de Euskadi.

4.— Analizar las posibilidades de actuación, en la defensa y promoción de sus intereses multisectoriales y territoriales, a través de las Delegaciones de Euskadi en el exterior.

5.— Estudiar y proponer relaciones bilaterales y multilaterales que el Gobierno Vasco pueda mantener con otros países, regiones, ciudades o entidades subestatales, con Instituciones supranacionales, así como su participación en foros y organismos internacionales.

6.— Debatir las medidas de coordinación, impulso, participación e información que, en cada uno de estos ámbitos, proponga la Secretaría General de Acción Exterior.

7.— Y todas aquellas que le fueran encomendadas.

**Artículo 3.**— Composición de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior.

1.— La Comisión Interdepartamental de Acción Exterior estará integrada por las siguientes personas:

a) Presidente: la persona titular de la Secretaría General de Acción Exterior, o persona en quien ésta delegue.

b) Vocales:

— Una persona representante de la Vicepresidencia y otra de cada uno de los Departamentos del Gobierno.

— Las personas titulares de las Direcciones de la Secretaría General de Acción Exterior.

c) Idazkaritza: Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiko pertsona bat, batzordeko idazkaritza lanak egingo ditu, hitz egiteko eskubidea izango du baina ezin izango du botorik eman.

2.- Botoa emateko eskubidea duten batzordekideek goi-kargudunak izan beharko dute eta sailburuak izendatuko ditu. Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiak izendatuko du idazkaritza-lanak egingo dituen pertsona.

3.- Kide anitzeko organo honetako kide titularrak ez badaude, gaixorik badaude edo justifikatutako arrazoiak badaude beste batzuk ari ahal izango dira haien ordez; baina, horretarako, aurrekoak izendatu zituen agintariak izendatu eta Batzordeburuari jakinarazi beharko zaio aurretik.

4.- Egiten dituzten jarduerengatik edo jakituria beretza izateagatik aholkuak eman ditzaketen beste pertsona batzuk deitu ahal izango dira Batzordearen bilkuretara, gaiak hala eskatzen duenean. Hitz egiteko eskubidea izango dute baina ezin izango dute botorik eman.

5.- Batzordearen Osoko bilkurak, halaber, berariazko lantaldeak sortu ahal izango ditu kanpoko harremenei buruzko zenbatzi gai aztertzeko.

*4.- artikulua.*- Kanpo Harremanetarako Sailarte-ko Batzordearen jarduna.

1.- Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordeak urtean behin bilduko da ohiko bilkuran eta, ohi ez bezala, Batzordeburuak horretarako deia egiten duenean, bere kabuz edo kideen herenak hala eskatzen duenean.

2.- Lehendakariak gutxienez hamabost egun lehenago egingo du deialdia eta horrekin batera gai zerrenda agertu beharko da. Behar bezala arrazoitutako presatasunagatik, hala ere, epea saihestu ahal izango da.

3.- Boto-eskubidea duten kideen gehiengo osoa berataratu beharko da batzordea osatzeko, horien artean batzordeburuak eta idazkariak egon beharko dutela nahi-taez.

4.- Batzordeak boto eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartuko ditu erabakiak eta berdinketa gertatuz gero batzordeburuak erabakiko du.

5.- Bilkura guztien akta egingo da. Aktetan norantzuek hitz egin duten, gai-zerrenda eta bilkura non eta noiz egin den zehaztu behar dira; aztertu diren gai nagusiak, bozketa-moduak eta bozketen emaitzak, eta era-bakiak ere azaldu behar dira. Batzordekideek, hala nahi izanez gero, aktan jaso ditzakete boto partikularrak.

6.- Aktak idazkariak sinatuko ditu, batzordeburuaren oniritziarekin, eta bilkura berean edo hurrengoan onetsiko dira.

c) Secretaría: una persona de la Secretaría General de Acción Exterior desarrollará las funciones de secretaría de la Comisión con voz y sin voto.

2.- Las personas con derecho a voto que integran la Comisión deberán tener la condición de alto cargo y serán nombradas por la persona titular del Departamento. La persona que desempeñe las funciones de secretaría será nombrada por la persona titular de la Secretaría General de Acción Exterior.

3.- En caso de ausencia, enfermedad o cualquier causa justificada, los miembros titulares de este órgano colegiado podrán ser sustituidos previo nombramiento por la autoridad que las haya nombrado y comunicación a la Presidencia de la Comisión.

4.- Cuando los asuntos así lo aconsejen, podrán ser convocados a las sesiones de la Comisión, con voz pero sin voto, otras personas que por sus actividades o conocimientos puedan ofrecer asesoramiento.

5.- El Pleno de la Comisión podrá, asimismo, crear grupos de trabajo específicos para el análisis de determinadas materias de acción exterior.

*Artículo 4.- Funcionamiento de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior.*

1.- La Comisión Interdepartamental de Acción Exterior se reunirá una vez al año, en sesión ordinaria y, con carácter extraordinario, cuando la convoque la Presidencia, por propia iniciativa o a petición de un tercio de los miembros.

2.- La convocatoria, con el orden del día, la realizará el Presidente con una antelación mínima de 15 días. Este plazo podrá ser soslayado por razones de urgencia debidamente motivadas.

3.- La Comisión quedará constituida con la asistencia de la mayoría absoluta de sus miembros con derecho a voto, entre los que deberá encontrarse necesariamente la persona titular de la Presidencia y de la Secretaría.

4.- La Comisión aprobará los acuerdos por mayoría simple de los miembros asistentes con derecho a voto, dirimiendo los empates el voto de la Presidencia.

5.- En cada sesión se levantará acta en el que se indicarán las personas que han intervenido, el orden del día, las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado, los puntos principales de la deliberación, la forma y resultados de la votación y el contenido de los acuerdos. Las personas miembro de la Comisión pueden hacer constar en acta sus votos particulares.

6.- Las actas serán firmadas por el Secretario o Secretaria, con el visto bueno de la Presidencia, aprobándose en la misma sesión o en la siguiente.

**5. artikulua.**— Administrazio-kudeaketa eta aurrekontua.

Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen jardunerako teknika- eta administrazio-laguntza ematea Kanpo Harremanetarako Idazkaritzari dagokio. Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordearen jardute-gastuak Kanpo Harremanetarako Idazkaritz Nagusiaren aurrekontuez ordainduko dira.

#### XEDAPEN GEHIGARRIAK

**Lebenengoa.**— Batzordekideen izendapena.

1.— Dekretu honen indarra hasten den egunaren biharamunetik hasi eta hilabeteko epean Sailburuordetza eta Sailek batzordekideak izendatu beharko dituzte.

2.— Epe hori iragan ostean batzordekide horiek osatuko dute Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea.

**Bigarrena.**— Dekretu honetan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidea-ren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan ezarritakoari eutsiko zaio.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Kanpo Harremanetarako Sailarteko Batzordea sortzen duen otsailaren 2ko 13/1993 Dekretua eta hori aldatzen duen uztailaren 2ko 162/1996 Dekretua.

#### AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Donostia-San Sebastiánen, 2007ko abuztuaren 31n.

Lehendakaria,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**Artículo 5.**— Gestión administrativa y presupuesto.

Corresponde a la Secretaría de Acción Exterior prestar la asistencia técnica y administrativa necesaria para el funcionamiento de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior. Los gastos de funcionamiento de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior serán con cargo a los créditos presupuestarios de la Secretaría General de Acción Exterior.

#### DISPOSICIONES ADICIONALES

**Primera.**— Nombramiento de personas Vocales.

1.— En el plazo de un mes, a contar desde el día siguiente al de la entrada en vigor del presente Decreto, la Vicepresidencia y los Departamentos deberán proceder al nombramiento de las personas vocales.

2.— Transcurrido dicho plazo la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior quedará constituida con tales miembros.

**Segunda.**— En lo no previsto en este Decreto la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior se regirá por lo dispuesto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 13/1993, de 2 de febrero, de creación de la Comisión Interdepartamental de Acción Exterior, y el Decreto 162/1996, de 2 de julio, de modificación del anterior.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 31 de agosto de 2007.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.